



2023ko APIRILAREN 3an EGINDAKO GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAKO KONTSEILU ERREKTOREAREN BILKURAREN AKTA

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (hemendik aurrera, eLankidetzta) egoitzan eta 2023ko apirilaren 3ko 11:00ak direnean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, honako pertsona hauen parte-hartzearekin:

- Nerea Melgosa Vega andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (hemendik aurrera, eLankidetzta) eta haren Kontseilu Errektoreko presidentea. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Asier Aranbarri Urzelai jauna, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Lehendakartzaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Fernando Iturriaga jauna, Programa eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Ordezkoa: Jone Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Ordezkoa: Iñigo Eguren jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Presentzialki bertaratu da.
- Bokala: Alberto Cereijo Fernández jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria. Presentzialki bertaratu da.

Ezin etorria adierazi dute:

- Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Osasun sailburuaren Kabineteko zuzendaria
- Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea. Giza Eskubide, berdintasun eta Justizia Batzordeko presidentea.
- Bokala: Oihana Etxebarrieta Legrand andrea, legebiltzarkidea eta Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, berdintasun eta Justizia Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa.

Era berean, gai-zerrendan dauden gaiak aurkezteko laguntza teknikoa eskaintzearen, honako hauek ere batzartu dira: Jose Antonio Rodríguez Ranz jauna, Giza Eskubide,

Memoria eta Lankidetzako sailburuordea, Alazne Camiña Izkara andrea, Koordinazio Teknikoko arduraduna, eta Izaskun Astondoa andrea, eLankidetzako Koordinazio Teknikoko arduraduna.

Sarrera

Nerea Melgosak hartu du hitza, ongi etorria egin die bertaratuei eta aukera baliatu du bere burua sailburu eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta haren Kontseilu Errektorearen zuzendari berri gisa aurkezteko. Ondoren, hasiera eman dio honako gai-zerrenda hau izango duen bilkurari:

1. *2023ko otsailaren 8an egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea*
2. *2023ko aurrekontu-gehikuntza onartzea*
3. *2023ko Funts Banagarriak eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea*
4. *2023ko Deialdietarako Oinarrizko Irizpideak onartzea*
5. *2023ko Urteko Plana onartzea*
6. *Soldata-gehikuntzari buruzko informazioa*
7. *Galde-eskeak*

1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea

2023ko otsailaren 8ko bilkuraren akta onartu da, bertaratutako guztien aldeko botoarekin.

2. 2023ko aurrekontu-gehikuntza onartzea

Paul Ortegak hartu du hitza aurrekontuak izango duen milioi bateko gehikuntza eta funtsen dagokion banaketa eguneratua aurkezteko. Zehazki, lankidetzaren proiektuen (PRO) deialdiaren aurrekontu-zuzkidura 500.000 euroan gehitzea aurreikusten da, 32 milioi eurotik 34 milioi eurora igarota, eta ekintza humanitarioko proiektuen (PRE) deialdia ere beste 500.000 euroan gehitzea, 4.750.000 eurotik 5.250.000 eurora igarota.

Funtsen banaketa berriaren aurkezpena arintzeko, bloke bakarrean onartzea proposatu du Paul Ortegak, gai-zerrendako hurrengo puntuak aurkeztu ondoren.

3. 2023ko Funts Banagarriak eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea

Alazne Camiñak hartu du hitza 2023ko Funts Banagarrien aldakuntzaren xehetasuna aurkezteko.

PRO eta PRE deialdien aurrekontu-zuzkiduren eguneraketaz gain (arestian adierazi bezala), doikuntza bat egin da espezializazio-beken deialdiaren urte anitzeko ordainketetan. Horrek ez dakar inolako gehikuntzarik, baizik eta 2023an eta 2024an hurrenez hurren despoltsatuko diren diru-kopuruen aurreikuspen hobea, bekadunak lanerako hartzeko eguneratutako egutegiaren arabera betiere. Horrenbestez, dirulaguntza zuzenen (ZUZ) zuzkidura zertxobait gehitzen da 2023ko BEK despoltsapenen aldearen ondoriozko zenbatekoarekin.

Azkenik, erakunde batek 2023an eLankidetzaren aldetik jaso dezakeen gehieneko zenbatekoaren igoera dakar aurrekontu-gehikuntzak, 3.201.940 eurotik 3.378.201,12 eurora igaroko baita.

4. 2023ko Deialdietarako Oinarrizko Irizpideak onartzea

2023ko deialdiak emateko irizpideen proposamenean izandako 3 aldaketak azaldu ditu Alazne Camiñak.

Alde batetik, PRE hasierako zuzkiduraren gehikuntzak Afrikan kokatutako proiektuei esleitu beharreko gutxieneko zenbatekoaren gehikuntza dakar, eta zuzkidura totalaren % 50 izango da nahitaez zenbateko hori.

Bestalde, azkenik ez da egokitzen jo 2023ko deialdietan behin-behineko ebazpenak tramitzeko hasierako planteamendua, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eLankidetzako laguntza-dekretuetan ezarritakoarekiko bateraezintasun bat dagoela ikusi baitu.

Azkenik, ekintza humanitarioko (EHE) estrategien deialdian erakundearen araberrako esleipenen gehieneko kopuruan zuzenketa bat dagoela adierazi du, 1etik 2ra igaro baita kopuru hori.

5. 2023ko Urteko Plana onartzea

Paul Ortegak adierazi du arestian aipatutako doikuntzak 2023ko Urteko Planean biltzen direla, eta doikuntza horiei jarraikiz aldatu da plana.

Hasieran planteatutakoari jarraikiz, bloke bakar batean onartu dira gai-zerrendako 2. puntutik 5. punturainoko guztiak. Bozkatu eta gehiengoz onartu da Josu Urrutiaren, Alberto Cereijoren eta Iñigo Egurenen abstentzioarekin.

Abstentzio horien inguruan galdetu du Nerea Melgosak eta Josu Urrutiak erantzun du % 0,7tik oso urruti zeudelako bozkatu zutela aurka aurreko aurrekontuetan. Izandako elkarrizketen ondoren, orain bilakaera konstruktiboa nabaritzen dela adierazi dute, aurrekontu-gehikuntza nabarmenduz, eta horregatik aldatu dute beren botoa abstentziora oraingo honetan.

Alberto Cereijok erantzun du, halaber, arrazoi berengatik bozkatu zutela aurka urte-hasieran –eskasegia iruditu zitzaien aurrekontua–, eta gehikuntza positiboki balioesten badute ere, ezin dute alde bozkatu eta horregatik abstenitzen dira.

6. Soldata-gehikuntzari buruzko informazioa

Izaskun Astondoak adierazi du 2023rako eLankidetzako langileek % 2,5eko ordainsari-gehikuntza izango dutela, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren langileek bezalaxe, 2023ko otsailaren 14ko Gobernu Kontseiluan onartutakoaren arabera.

7. Galde-eskeak

Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko Euskal Legearen aurreproiektuaren egoerari buruz galdetu du Alberto Cereijok. Paul Ortegak adierazi du Kontrol Ekonomikoko Bulegora bidali zela aurreproiektua otsaila amaieran bulegoak berak nahitaezko txostena eman dezan, eta Aholku Batzorde Juridikoak aztertu beharko du ondoren. Azkenik, Kontseilu Errektoreari aurkeztuko zaio onartu eta Gobernu Kontseilura eramateko, uztaila amaitu baino lehen, aurreikuspenen arabera.

Nerea Melgosak gehitu du Legebiltzarrean egin beharreko agerraldien eta ponentzien prozesua arindu ahalko dela bere ustez, aurreproiektua lantzeko prozesuaren izaera partizipatiboari esker.

Beste galderarik ez dagoenez, aurrekontu-gehikuntza lortzeko egindako lana eskertu du Nerea Melgosak, eta bilkura amaitutzat eman du 11:33an.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2

artikuluaren lehen paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta eLankidetzaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE Nerea Melgosa Vega andrea,
eLankidetzako eta haren Kontseilu
Errektoreko presidentea.

Paul Ortega Etcheverry
Kontseilu Errektoreko idazkaria
eLankidetzako zuzendaria